

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1360

46/2016 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa, Lanbide Heziketako zenbait tituluri dagokien curriculumaz ezarri eta lehengo zenbait titulurekin lotutako titulu berriak lortzeko kurtso osagarriak sortzen dituena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorra finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsulta egin ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, bai eta titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko alderdiak ere.

Ekonomia Jasangarriaren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia Jasangarriaren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena.

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, oinarritzat hartzen dira Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste zenbait alderdi.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira kompetentzia orokorra, kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren kompetentzia-atalak, tituluetan sartuta daudenak. Horrenbestez, gutxienez, osatutako lanbide-kualifikazio bat hartuko du barnean titulu bakoitzak, betiere Lanbide Heziketako tituluek eraginkortasunez erantzun diezaieten produkzio-sistemaren beharrei eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege-dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari

eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 149.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako. Dekretu hori otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatu du, hau da, Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen Dekretua aldatzen duenak.

Haien artean antzekoak diren lanbide-heziketako tituluak sortzeko oinarrizko zenbait arautan ezarritako gutxieneko irakaskuntzek aukera ematen dute Euskal Autonomia Erkidegoan hiru ikasturtetan bi titulu lortzeko, halako tituluetarako curriculumak ezarriz, eta titulu horietan aurreikusitako lanbide-moduluen sekuentziazio egokiaren bidez.

Adierazitakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoan argitara eman dira Lanbide Heziketako goi-mailako zenbait teknikari-tituluren curriculumak ezartzen duten dekretuak, eta, haietan, tituluak antolatzeke eta ezartzeko zehaztasunak jasotzen dira. Titulu horiei dagozkien irakaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatuen sarean emango dira. Nolanahi ere, titulu horiek ezarri ondoren, ikusi da zenbait heziketa-ziklotan posible dela hiru ikasturtetan bi titulu lortzea, bi ikasturteetako lanbide-moduluen sekuentziazioa hobetuta.

Hortaz, lanbide-heziketako ikasleek profil pertsonala zabaldu eta hobetu dezaten eta, hartara, enpresei, enpresa txikiei batez ere, lanbide-arlo jakin bateko kualifikazio zabalagoa duten profesionalak eskaintzeko asmoz, erabaki da lanbide-heziketako bigarren titulu bat epea laburragoan lortzeko aukera ematea. Era horretan, ikasleen denbora optimizatuko da, bai eta horretarako eskuragarri jartzen zaizkien bitartekoak ere. Xede hori betetzeko, antzekoak diren zenbait heziketa-ziklotan, berrantolatu beharra dago lanbide-moduluen sekuentziazioa, honako era honetan: lehen ikasturte komun bat antolatuko da, hiru ikasturtetan bi titulu eskuratu ahal izateko.

Kualifikaziorik onena epe laburragoan lortzea errazteko asmoz, betiere, ikusi da zenbait heziketa-ziklotan ez dela egokia lanbide-moduluen sekuentziazioa berrantolatzea. Halakoetan, beraz, hirugarren ikasturte batean emango dira ziklo horretara bilduko diren tituludunek egin ez dituzten moduluak. Era horretan, Eraikuntza Proiektuetako tituludunek aukera izango dute Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua ere lortzeko, hirugarren ikasturte batean, eta, alderantziz, Obra Zibileko Proiektuetako tituludunek aukera izango dute, hirugarren ikasturte batean, Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua ere lortzeko.

Horretaz gainera, modu logikoagoan ordenatuko dira Osasun Larrialdietako eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arretako heziketa-zikloetan ematen diren edukiak, ikasleek ikaste-prozesuan duten sekuentzia arrazoizkoagoa izan dadin eta irakasleek bi kurtso horietan esku-hartze orekatuagoa izan dezaten.

Aipatutako xedeekin bat etorritik, eta tituluak aztertu eta arloko eragileen iritzia jaso ondoren, erabaki da zenbait heziketa-ziklotan lanbide-moduluen ikasturte-sekuentziazioa aldatzea eta aipatutako kurtso osagarriak prestatzea, haietan bilduz egin gabeko lanbide-moduluak, hirugarren ikasturte batean bigarren titululazioa lortzeko beharrezkoak direnak.

Dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Hori dela-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak proposatuta, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko martxoaren 15ean egindako bilkuran proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

2016ko apirilaren 1a, ostirala

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aldatzea azaroaren 27ko 253/2012 Dekretuaren I. eranskina, Garraioko eta Logistikako Goi Mailako Teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Beste idazkera bat emango zaio azaroaren 27ko 253/2012 Dekretuaren I. eranskinari (2013ko martxoaren 11ko EHAA), hiru urtetan bigarren titulua bat lortzeko aukera emateko, Nazioarteko Merkataritzako goi-mailako teknikariaren titulua, hain zuzen ere. Honela idatzita geratzen da eranskin hori:

«AZAROAREN 27KO 253/2012 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0621	Garraioaren eta logistikaren administrazio-kudeaketa	160	2
0622	Salgaien nazioarteko garraioa	198	1
0623	Enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa	198	1
0624	Garraioaren eta logistikaren merkaturatzea	140	2
0625	Biltegitratzeko logistika	132	1
0626	Hornitzeko logistika	80	2
0627	Nazioarteko merkataritzaren administrazio-kudeaketa	198	1
0628	Bidaiarien garraioaren antolamendua	80	2
0629	Salgaien garraioaren antolamendua	140	2
0179	Ingelesa	165	1
0630	Garraioko eta logistikako proiektua	50	2
0631	Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
0632	Lantokiko prestakuntza	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

»

Bigarren artikulua.– Aldatzea apirilaren 22ko 335/2013 Dekretuaren I. eranskina, Nazioarteko Merkataritzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Beste idazkera bat emango zaio apirilaren 22ko 335/2013 Dekretuaren I. eranskinari (2013ko ekainaren 10eko EHAA), hiru urtetan bigarren titulua bat lortzeko aukera emateko, Garraioko eta Logistikako goi-mailako teknikariaren titulua, hain zuzen ere. Honela idatzita geratzen da eranskin hori:

«APIRILAREN 22KO 335/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0622	Salgaien nazioarteko garraioa	198	1
0623	Enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa	198	1
0625	Biltegiaritzeko logistika	132	1
0627	Nazioarteko merkataritzaren administrazio-kudeaketa	198	1
0822	Merkatuen informazio-sistema	80	2
0823	Nazioarteko marketina	140	2
0824	Nazioarteko negoziazioa	100	2
0825	Nazioarteko finantzaketa	100	2
0826	Nazioarteko ordainbideak	100	2
0827	Nazioarteko merkataritza digitala	80	2
0179	Ingelesa	165	1
0828	Nazioarteko merkataritzako proiektua	50	2
0829	Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
0830	Lantokiko prestakuntza	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

»

Hirugarren artikulua.– Aldatzea apirilaren 22ko 342/2013 Dekretuaren I. eranskina, Salmentak eta Merkataritza Espazioak Kudeatzeko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumaz ezaugarri duena.

Beste idazkera bat emango zaio apirilaren 22ko 342/2013 Dekretuaren I. eranskinari (2013ko uztailaren 11ko EHAA), hiru urtetan bigarren titulua bat lortzeko aukera emateko, Marketin eta Publizitateko goi-mailako teknikariaren titulua, hain zuzen ere. Honela idatzita geratzen da eranskin hori:

«APIRILAREN 22KO 342/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0926	Erakusleho-apainketa eta merkataritza-espazioen diseinua	140	2
0927	Produktuak eta sustapenak salmenta-puntuak kudeatzea	80	2
0928	Salmenta-taldearen antolamendua	100	2
0929	Salmenta- eta negoziozko-teknikak	100	2
0930	Marketin-politikak	198	1
0931	Marketin digitala	198	1
0623	Enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa	198	1
0625	Biltegiatzeko logistika	100	2
0626	Hornitzeko logistika	80	2
1010	Merkataritza-ikerketak	132	1
0179	Ingelesa	165	1
0932	Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzeko proiektua	50	2
0933	Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
0934	Lantokiko prestakuntza	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

»

2016ko apirilaren 1a, ostirala

Laugarren artikulua.– Aldatzea uztailaren 2ko 375/2013 Dekretuaren I. eranskina, Marketin eta Publizitateko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Beste idazkera bat emango zaio uztailaren 2ko 375/2013 Dekretuaren I. eranskinari (2013ko urriaren 8ko EHAA), hiru urtetan bigarren titulua bat lortzeko aukera emateko, Salmentak eta Merkataritza Espazioak Kudeatzeko goi-mailako teknikariaren titulua, hain zuzen ere. Honela idatzita geratzen da eranskin hori:

«UZTAILAREN 2KO 375/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0623	Enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa	198	1
0930	Marketin-politikak	198	1
0931	Marketin digitala	198	1
1007	Komunikazio-materiala diseinatzea eta lantzea	140	2
1008	Komunikabideak eta komunikazio-euskarriak	80	2
1009	Harreman publikoak eta marketin-ekitaldien antolamendua	100	2
1010	Merkataritza-ikerketa	132	1
1011	Merkataritza-ikerketako landa-lana	80	2
1109	Produktuak eta zerbitzuak merkaturatzea	100	2
1110	Bezeroarentzako, kontsumitzailearentzako eta erabiltzailearentzako arreta	100	2
0179	Ingelesa	165	1
1012	Marketineko eta publizitateko proiektua	50	2
1014	Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1013	Lantokiko prestakuntza	360	2
	Zikloa, guztira	2.000	

»

2016ko apirilaren 1a, ostirala

Bosgarren artikulua.– Aldatzea martxoaren 2ko 69/2010 Dekretuaren I. eranskina, Osasun Larrialdietako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Beste idazkera bat ematen zaio martxoaren 2ko 69/2010 Dekretuaren I. eranskinari (2010eko apirilaren 6ko EHAA); honela idatzita geratzen da:

«MARTXOAREN 2KO 69/2010 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua:	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0052	Ibilgailuaren mekanikako mantentze-lan prebentiboak	99	1
0053	Osasun-logistika larrialdietan	147	2
0054	Osasun-zuzkidura	132	1
0055	Hasierako osasun-laguntza larrialdi-egoeretan	231	1
0056	Osasun-laguntza berezia larrialdi-egoeretan	252	2
0057	Pazienteak ebakatu eta lekualdatzea	231	1
0058	Laguntza psikologikoa larrialdi-egoeretan	99	1
0059	Larrialdi-planak eta aurreikus daitezkeen arriskueterako baliabideak	63	2
0060	Telelarrialdiak	66	1
0061	Oinarrizko anatomofisiologia eta patologia	99	1
E100	Ingeles teknikoa	33	1
0241	Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2
0242	Enpresa eta ekimen ekintzailea	63	2
0243	Lantokiko prestakuntza	380	2
	Zikloa, guztira	2000	

»

2016ko apirilaren 1a, ostirala

Seigarren artikulua.– Aldatzea azaroaren 27ko 250/2012 Dekretuaren I. eranskina, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta Egiteko teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Beste idazkera bat ematen zaio azaroaren 27ko 250/2012 Dekretuaren I. eranskinari (2013ko urriaren 8ko EHAA); honela idatzita geratzen da:

«AZAROAREN 27KO 250/2012 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide-modulua:	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0210	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua	105	2
0211	Gizarte-trebetasunak	99	1
0212	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta beharrak	132	1
0213	Arreta eta laguntza psikosoziala	252	2
0214	Komunikaziorako laguntza	99	1
0215	Etxeko laguntza	264	1
0216	Osasun-arreta	198	1
0217	Arreta higienikoa	105	2
0831	Telelaguntza	99	1
0020	Lehen laguntzak	66	1
E100	Ingeles teknikoa	33	1
0218	Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2
0219	Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2
0220	Lantokiko prestakuntza	380	2
	Zikloa, guztira	2.000	

»

Zazpigarren artikulua.– Aldatzea azaroaren 29ko 244/2011 Dekretua, Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

1.– Hirugarren xedapen gehigarria gehitzen zaio azaroaren 29ko 244/2011 Dekretuari (2011ko azaroaren 29ko EHAA); honela dio:

«Hirugarrena.– Kurtso osagarri bat sortzen da Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua hirugarren ikasturte batean lortzeko.

1.– Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua lortzeko kurtso osagarria sortzen da, dekretu honen VII. eranskinean zehaztuta dagoena.

2.– Kurtso osagarri hori egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulazioa egiaztatzea. Eskatutako plazak gehiago baldin badira eskaintzen direnak baino, lehentasuna izango dute titulazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko zentzoren batean lortu dutenek.

3.– Eraikuntza Proiektuetako heziketa-zikloa emateko baimendutako zentroek eman ahal izango dute kurtso hori.

4.– Xedapen gehigarri honetako 2. paragrafoan kurtso osagarri hori egiteko beharrezkoa den titulazioari buruz aipatutako betekizunaz gainera, kurtsoan matrikulatzeko eta onartua izateko epeak eta irizpideak lanbide-heziketako irakaskuntza guztietarako urtero ezartzen diren berdinak izango dira.»

2.– VII. eranskina gehitzen zaio azaroaren 29ko 244/2011 Dekretuari (2011ko azaroaren 29ko EHAA); honela dio:

«VII. ERANSKINA

ERAIKUNTZA PROIEKTUETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN TITULUA HIRUGARREN IKASTURTE BATEAN LORTZEKO KURTZO OSAGARRIA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena
0567	Eraikinen diseinua eta eraikuntza	154
0568	Eraikuntza-instalazioak	132
0569	Energia-eraginkortasuna eraikuntzan	66
0570	Bizitegi-eraikuntzako proiektuen garapena	176
0571	Bizitegiz bestelako eraikuntza-proiektuen garapena	132
0572	Eraikuntzako proiektua	50
0575	Lantokiko prestakuntza	300
	GUZTIRA	1010

»

Zortzigarren artikulua.– Aldatzea otsailaren 28ko 29/2012 Dekretua, Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

1.– Hirugarren xedapen gehigarria gehitzen zaio otsailaren 28ko 29/2012 Dekretuari (2012ko maiatzaren 10eko EHAA); honela dio:

«Hirugarrena.– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua hirugarren ikasturte batean lortzeko kurtso osagarria

1.– Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulua lortzeko kurtso osagarria sortzen da, dekretu honen VII. eranskinean zehaztuta dagoena.

2.– Kurtso osagarri hori egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikariaren titulazioa egiaztatzea. Eskatutako plazak gehiago baldin badira eskaintzen direnak baino, lehentasuna izango dute titulazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko zentzoren batean lortu dutenek.

3.– Obra Zibileko Proiektuetako heziketa-zikloa emateko baimendutako zentroek eman ahal izango dute kurtso hori.

4.– Xedapen gehigarri honetako 2. paragrafoan, jasota dago zer titulazio eduki behar den kurtso osagarri hori egiteko. Horretaz gainera, kurtsoan matrikulatzeko eta onartua izateko epeak eta irizpideak lanbide-heziketako irakaskuntza guztietarako urtero ezartzen diren berdinak izango dira.»

2.– VII. eranskina gehitzen zaio otsailaren 28ko 29/2012 Dekretuari (2012ko maiatzaren 10eko EHAA); honela dio:

«VII. ERANSKINA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN TITULUA HIRUGARREN IKASTURTE BATEAN LORTZEKO KURTSO OSAGARRIA

Kodea	Lanbide-modulua	Ordu-esleipena
0769	Hirigintza eta obra zibila	132
0770	Obra zibileko sareak eta zerbitzuak	132
0771	Jasotze topografikoak	154
0772	Hirigintza-proiektuen garapena	132
0773	Obra linealetako proiektuen garapena	110
0774	Obra zibileko proiektua	50
0777	Lantokiko prestakuntza	300
	GUZTIRA	1010

»

2016ko apirilaren 1a, ostirala

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Aldatutako dekretuen II. eranskinak aldatzea.

Dekretu honetako 1-6 artikuluen bidez I. eranskina aldatu den dekretuetan, II. eranskina ere aldatuko da, kurtsoari eta ordu-esleipenari dagozkien ataletan. Izan ere, atal horiek egokitu behar dira aldatutako I. eranskinen idazkera berrira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIAGARRIA.– Aldaketak ezartzea.

1.– Heziketa-zikloaren lehenengo kurtсотik aurrera ezarriko dira 1. artikulutik 6.era bitartean jasotako aldaketak, eta dekretu hau argitaratu eta hurrengo ikasturtean jarriko dira martxan.

2.– 1. artikulutik 6.era bitartean ezarritako heziketa-zikloen lehenengo kurtsoa lanbide-moduluen antolamendu berria ezarri baino lehen egin duten ikasleek, mailaz igotzeko, ordura arte indarrean zeuden baldintzak bete beharko dituzte.

3.– 7. eta 8. artikuluetan jasotako kurtso osagarriak, bestalde, dekretu hau argitaratu eta hurrengo ikasturtean ezarriko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kurtsoa errepikatzea.

Dekretu honetako 1. artikulutik 6.era bitartean jasotako heziketa-zikloak lanbide-moduluen antolamendu berria ezarri ondoren errepikatu behar dituzten ikasleek lanbide-moduluen antolamendu berria aplikatuzetik sortutako baldintzak bete beharko dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 15a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.